

# GOBERNU TA PARLAMENTUAREN ARTEKO KONPONDU EZIÑA


Lima'tik gure korrespondal dan Xabier Igiñiz'ek

Xabier Igiñiz Lesaka'koa da baiñan lau urte erdi daramazki Lima'n. Ingenieria Electrica egite ari da ta karrean ortan bigarren urtea daramaki. UNEC (Unión Nacional de Estudiantes Católicos) izeneko elkartzasuneko da.

## PERU'KO PARTIDUAK

Lehenago uste dut komeniko dela Peru'ko partiduak zebeiti eta nolakoak diren esatea. «Acción Popular» (AP) izenekoak berri xamarra da bainan erriaren beartzetatik sortua izan delako errikoia da ta erri indar asko du atzetik. «Democra-

cia Cristiana» (DC) AP'rekin gobernuan arkitzen da, batez ere zuzendariak ditu baiñan erri gutxi ta sindikatoetan indar gutxi. Beste partidu batek APRA du izena eta marxista bezela asi zen eta orain erdi ezkerrekoa da baiñan liberal-kapitalismoan interesak ba ditu (kontradikzioa baldin bada ere). Erria-



ren barruan duen sakotasuna gordetzen du ta baita ere oraindikun bere mistika gordetzen du.

«Unión Nacional Odrista» (UNO) izeneko Odría generalaren mende dago ta terreniente audien laguntza du. Ba dira beste partidu txiki batzuek. Oien artean «Social Progresista (SP) izeneko da bai, ongi prestatutako jendea duen partidua, cuadro onak dituen partidua.

## GOBERNUA TA PARLAMENTUA

Gobernua AP-DC elkartzasun bat da baiñan Parlamentuan APRA-UNO'k agintzen du. Binomio onek tentsio aundi bat sortarazten du nazioaren barruan eta ori batez ere lejislatzioan igartzen da. Prolema aundietan, petroleuarenean esate baterako, bi indarrak (gobernuak eta Parlamentuak) partidu bakotzaren onerako soluzio bat arkitu nai dute onela erriaren aurrean indar ta prestijio geiago izateko.

AP-DC ta APRA-UNO'ren arteko burruka sindikatoetan ere ikusten da, bigarrenak indartsuak bai dire sindikatoetan.

Unibersitarioak ere parte artzen dute, batzuetan gogor gainera bainan bearezko egiten gogortarekin.

## GORA BEHERAK

Ba dirudi gobernuak zuan indarra erriaren aurrean galtzen ari dela, alde baterik Peru'ko eguneroko geienak aurka ditualako. Orretaz gainera Peru'k daukan zenbait problema, komunistak, apostrikak eta kristautu demokrata batzuek esplotatzen dituzte onela gobernuari erriaren laguntza kentzeko, eta nola prolema oiek erriaren prolema diren zuzen zuzenean (esate baterako janariaren prezioa ta transportien prezioa) gogorragoak eta arrisku aundiagokoak dira.

Situazioa aldatu liteke baiñan bakar bakarrik Peru'k daukan prolema audienei ematen zaien soluzioa ikusten danean. Esate baterako lantergi batzuek nazionalizatzen direnean, nekazaritzaren reforma egiten danean, Unibersidadea eraberritzen danea etab.

Baiñan dana ez da burruka ta prolema. Mila ta berreun unibersitario indiginen artean dabilta aurre-rapena ematen. Gobernua eginkizun aundietan sartua dago ta eginkizun oiek aurrera dijoazte. Ta beste ainbeste gauz

# Frantzi'ko Katolikoek artean zalapartak

## GOTZAIEN JOERA GAI ONETAZ

(Paris'tik gure korrespondal dan André NOZIERE'k)

Paris'tik 1965'go martxuan. —Paris'ko apezpiku dan Feltn jaunak dionez "erlijio ta politika nahasketako garaia darabilkigu Frantzi'ko eleizan". Geiago oraindik: "Kontzilioa kritikatzan da, Aita Santua kritikatzan da, gotzaiak kritikatzan dira, gotzaiak bere artean asarretu erazitzen saiatzen dira batzuek, ta oiek berak apaizak gotzaien aurka jarri naiean dabilta. Ta akusazio bezela apaiz oiek eta gotzaiak progresistak direla esaten dute". Apezpikuak akusazio guztiak epaitzen ditu eta bere ustean "ortodoxiaren defenditzaile izan nai duten jendeak egindako akusazioak dira oiek, naiz eta ori ez izan. Eleizaren morroi izan nai ez duten jendeak dira, Eleiza bere morrointzan eduki nai dutenak baizik".



Ona izango da da gure korrespondala pot dan esatea. Frantzes au Paris'en erakuste da, histori erakuste da Paris'ko Lizeo batean. Sindikalista da, C. F. D. T. izeneko sindikatoan dagona, su da, lenago kristau izena zeramakin sindikatoan eta azarora ezkerotik deskonfisionalizatu zan sindikatoan.

## APAIZ BERRIAK

Millaka aleko nobela batek sortu ditu nahasketa ta zalapartak Frantzi'ko erri-iritzian. "Apaiz berriak" izenarekin iduzle katoliko batek, Michel de Saint-Pierre'k, izen aundiko nobelen egileak, Paris'ko inguruetako langille parroki bateko apaizak erabiltzen ditu protagonista bezela. Apaiz oiek progresistak dira, komunistentzat "izan litekien laguntzarik onena" egileak dionez. Baiñan nobela ortan ez da ori apaiz batzuetaz bakarrik esaten, apaiz getenetzaz baizik, au da, "marxismoa bizkar ezurretaraño sartua duten apaiz berrietaz" Michel de Saint-Pierre'n iritzian. Kalumni onen aurrean gotzaiak ez dira irillik gelditu. Bere apaizei egindako idatzi batean onela dio Paris'ko Apezpiku ordezkoak: "nobela baten itxuran gure parokietako apaizen aurka azaldu diran gezur eta kalumnien aurrean pozgarri zaigu ordu aurretan apaiz artean eta gure artean arkitzen dan elkartzasuna ta espiritu batasuna". Beste gotzaiak ere zentzu onetan mintzatu dira. Baiñan gora-beherak ez dira ortan gelditu. Idazle orrek kristau asteroko baten zuzendaria tribunaletara oman nai du bere ustean difamazio-agatik.

## ITZAK ETA EGITEAK

Nahasketa guzti auek egumerokoan, paperean bisartez egiten dira eta Kontzilioa ta bere lanen aurka itzegen dute. "Aggiornamento" delakoaren defenditzaileak marxismoaren laguntzaile bezela azaldu nai dituzte. Eta nahasketa ta zalaparta oiek sartu nai dituztenak ez dira itzetan ta papertan bakarrik gelditzen. Kontzilioaren gainean izaten diran billera guztiak galerazten saiatzen dira.

Batez ere aita CONGAR'en aurka egiten dute lana. Aita onen bailioa, lana ta Paulo VI'gnak dión

arrrera ezin ukatu. Ematen ditun itzaldietan an arkitzen dira integristak bere txistu ta oiuekin: "Apaiz marxista, CONGAR komunistak, Moscou'ra... etab". Orrela gertatu da Paris'en Nimes'en eta beste lekuetan. Bestaldetik berriz "Pax Christi" elkartzasun katolikoak egun batean ez zuan bere billera eleizan egiterik ahal izan integristak armatu zioten iskanbillagatik eta alboko eleiz... protestantean egin bear izan zuten billera.

Feltn apezpikuak dionez integristen kanpaina au gero ta geiago Kontzilioaren aurka dijoa ta Frantzi'ko gotzaiak Aita Santuaren aurka bezela azaldu nai dituzte, galkanoak omen dira alegia ta beñere beñe geiago Aita Santuaren itzari bakarrik begiratu zear zaiola, Frantzi'ko gotzaiak Aita Santuarekin bat ez datoztelako.

## AITA SANTUAREN ITZA

Zer pentsatzen du Aita Santuak onetaz? Lengo batean Villot Lyon'go Apezpiku berria ta Frantzi'ko lehen apezpiku dana Aita Santua'rekin egon zan eta onek esan zion: "Nik ezin ditazkete egirik gabe utzi kristauak eta argi adierazi bear dut ezin ditelako Aita Santuarekin espirituan bat izan bear erriko gotzai ta apaizekin izan gabe". Orduan Villot apezpikuak galdetu dio Aita Santuari: "Ezagutu erazi al ditazkete zuek esandako itzak?".

"Ba, esan dio Aita Santuak, esan ditzaizue ta esan bear dituzu, ni Frantzi'ko gotzaiekin bat natorrela oso osorik".

Ixilduko ote dira onekin integristak? Era guztiatara bulla asko egin arren gutxi dira integrista oiek baiñan Frantzi'ko katolikoetan nahasketak ta konfusioa sartzeko naioak.

# NAZIO-ARTEKO UNEA USTE DUGU...

Guk idatzitakoan gainean makiña bat iritzi ta mar-mar iritzi dira gure entzuterak. Ori dala ta azterketa bat egin dugu. Iritzi ta mar-mar oiek, guk idatzitakoak eta gure joerak azertu ditugu, gure periodista ta berrilari ofizio onetan argi ta garbi jokatu nai dugulako. Ara gure azterketak adierazi diguna.

Batzuek diotenez dogmatikoak eta tendenziosoak omen gera. Itzegen dugun galetaz "ex cathedra bezela itzegen omen dugu. Obe izango omen genuke objektibidadearekin itzegitea. Ba itxe gazte bezela gure iritzietan batzuetan radikalak izatea, ez dugu orrelakorik ukatuko.

Baiñan deskulduan dabilta gu objektibidadearen atzetik ez gabiltzala uste dutenak. Objektibidadea zer dan azertu dezagun ordea.

Batzuen ustean objektibidadea izatea gertakizunen berri ematek litzake. Baiñan egia, objektibidadea, gertakizunetan asi bakarrik egiten da ta ez bukatu. Gertakizuna azal bat besterik ez da, gertakizunen azplan dago bizitza ta bizitza orrek historia du izena, ta bizitza ori ikusten ta esaten ez dugun bitartean ez dugu beñere objektibidade osoa iritzi. Gertakizunak ibal aundi baten tantonak besterik ez dira, ibala bizitza, historia, da ta gertakizunak dira tantonak. Ibaia ez dago beñere geldirik orregatik nolako dan jakiteko bere barruan sartu bearra dago. Ori da guk nai duguna. Objektibidadearen billa, egia, gertakizunak bilerak atzetik. Billak gabiltzala esaten dugu, beti ez irixtea ba litekelako. Billak gabiltzala esaten dugu baliakelako batzuetatik bestera iritzi aldatu bearra izatea. Gainera gertakizun batek berak bakarrik ez du ezer esan nai, beste guztiakin batu bear dugu gertakizun bakoltzen zentzu bat arkitzeko. Ori da gu egiten saiatzen gerana. Ta ez uste izan arin idazten dugunik. Esaten dugun guztia defenditzeko nai materiala ba dugu ta ez dugu besterik gabe esaten pentsatuta baizik.

Gainera ez da gure asma jendearen nala asetzeta. Gaur egunean prensa gelena jendearen gustora jarria dago, au da, jendeak entzun nai ditunak bakarrik esaten dituzte, jendeak entzun nai ditunak eta jendeak entzun nai ditun bezela. Diruaren ondorenak dira oiek. Ondo bizi diranak, eta aldizkari gelenak oiek erosten dituzte, ez du aldaketa aundirik nai, gauzak dauden bezela maite dituztelako. Gu ordea, ez gera pentsatzen egoten ea irakurle zer gustatuko zaien edo, pentsatzen duguna esan besterik ez dugu egiten. Gainera nortsuek dira objektibidade ori gelena eskatzen dutenak, gertakizunetan bakarrik gelditzen dan objektibidadea? Jendea despolitizatu nai dutenak, jendeak pentsazeari bil-durra diotenak.

Beste batzuek berriz miñ egiten die ainbestetan ideia aundietaz itzegitea: justizialtas, paketzatza, demokrazialtas etab. Eta itzegin besterik ez dugula egiten esaten digute. Dugarik ez dago. Periodistak, berrilariak, gera ta afizio oni dagokionez gure tresna bakarra itza da ta pentsatzen duguna izaren bitartez bakarrik defenditu bearean arkitzen gera ofizioa orrelakoa delako.

Beste batzuek uste dute nai prolema ba dirala omen mundukoetzaz itzegen jarduteko. Uste dugu ori esaten dutenak ez dutela ondo pentsatu zer esaten duten. Alde baterik munduko geratara guztiak dute zer ikusia elkarren artean. Besterik guk asteroko ontan sekzio bat daramakigu ta ori bete bear dugu. Uste dugu ba dala garaia gure artean espezializazio batera irixtekoa ta ez edozeinek edozertaz itzegitekoa.

Irakurle guk ez dizugu eskatzen gure iritziekin bat efortzea, iritzi oiek neurtea ta epaitzea besterik ez dizugu eskatzen. Ta gurekin ados, konforme, ez ba zera ere beti esan nai dizugu gogalde ez baldin bazera ere gure adizkide zerala.

PHILIPPE ARIZKUN, RIKARDO ARREGI, MIKEL LASA